

**1999KO URRIAREN 28AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzia

HILABETEA: Urria

URTEA: Mila bederatzehun eta laurogeita hemeretzia

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Josi Insausti Mujika
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristán
Patxi Plazaola Muguruza
Jon Berbel Aiestaran
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Aimar Larrea Garín
Leire López Zurutuza
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gómez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna
Jorge Juan Outeiral Fernandez

ETORRI GABEAK: Pello Garaialde Goikoetxea

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

1999ko irailaren 30eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute akta berarekiko zer esanik ez dagoelako (EHko zinegotziak [oraindik](#) ez dira bilerara etorri).

2- KREDITU ALDAKETA

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: "A lo largo del año han surgido una serie de imprevistos o más bien de aumento de gastos, y por ello se propone una modificación de créditos.

Laburki esan da, kreditu aldaketa honetan datza:

- Liburutegian 2000. urteko efektoa dela eta beste arazo batzuegatik programa informatikoa aldatu beharra dago. Horren ondorioz, kultura batzordeak 590.000 pezetako kontusaila egokitzea [proposatu du](#). Kulturako aurrekontutik finantzatuko da.

- Erauskin auzoan San Andres ermita dago eta katalogatutako ondasuna da. Egoera oso txarrean dago eta konpontzen hasi aurretik azterketa bat egin da eta jakin da obren kostua 6.050.000 pezetakoa izango dela. Foru Aldundiari dirulaguntza eskaera egin zaio eta 1.500.000 pezeta emango digu. Ermita horren [jabearekin](#) harremanetan jarri gara eta ez du inolako oztoporik azaldu ermita hori Udalarari lagatzeko.

- INDAREkin onartutako lursailen trukea formalizatzeko aurrekontuan 20.946.000 pezeta aurreikusi behar dira, trukatu behar diren bi ondasunen artean dagoen diferentzia [berdintzeko](#). Konpentsazio [hori](#), pabiloi berria eraikitzeagatik ondorioztatuko den tasa eta zergaren [zenbatekoa](#) MAQUINAS ELECTRICAS E HIDRAULICAS INDAR S.L. enpresari subentzionatuz burutuko da. Honek ez digu inolako [kosturik ekarriko](#), sarreretan ere diru hori aurreikusi egiten baita.

- Matxinbentako frontoia. Hasiera batean lehiaketa hutsik gelditu zen eta beste batean adjudikatu eta gero enpresa adjudikaziodunak [atzera egin](#) zuen. Proiektua berrikusi egin zen eta lizitazio prezioa 17.000.000 inguru atera zen. Adjudikatu ondoren, 6.000.000 gehiago kostatuko dela ikusi da. 6.000.000 horietatik, 3.000.000 Azpeitiak eta Ezkio-Itsasok jarriko dituzte.

- Bukatzeko esan, aurrekontuetan 2.000.000ko eta 4.000.000ko kontusailak daudela liburutegiko obrei aurre egiteko eta kultura batzordean

proiektua aztertu ondoren, jakin da obrak 12.000.000 pezetako kostua izango dutela, aurreikusita zeuden baino zerbitzu gehiago martxan jarriko direlako, ludoteka bat barne.

Horrek guztiak [aurrekontua](#) 45.586.000 pezetatan gehitzen du eta horri aurre egiteko 13.000.000 beharko ditugu. Kontuan izanik 1998. urteko likidaziotik [dirua geratu dela](#), [sobera](#) horrekin finantzatzea proposatzen da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Orokorki ados gaude. Galdera bat [bakarrik](#), zergatik aurreratu da San Andres ermitako obra?”

Alkate (EAJ/PNV- EA) jaunak: “Erortzear dago eta badirudi berandu gabiltzala. Adituek esan dute haize bolada indartsua edo elurte bat izango balitz erori egingo [litzatekeela](#).”

Arantza Aseginolaza (EAJ/PNV- EA) andreak: “Foru Aldundian proiektu horrentzat laguntza eskatu genuenean, INEMen ere arkeologo baten beharra azaldu genuen. Bi gauzak paretsu joan behar dira.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Kontuan izanda aurki aurrekontua [egin behar dela](#), zuen aldetik azkeneko kreditu-aldaketa izango [dela ziurtatuko bazenigute](#), abstenitu egingo ginateke. Bestela aurka azalduko gara.”

Alkate (EAJ/PNV- EA) jaunak: “Teknikoek [kalkulu](#) bat egiten dute, baina badaude gauzak aurreikusi ezin direnak.”

Arantza Aseginolaza (EAJ/PNV-EA) andreak: “Liburutegian beste gauza bat sortu da. Eusko Jaurlaritzak liburutegiak informatizatzeko aurkeztutako proiektuan [sartutako](#) aurrenetakoak izan ginen eta denbora oso laburrean informatizatu ginen. Lau pertsona kontratu genituen lan hori egiteko. Momentu honetan Eusko Jaurlaritzak, guk daukagun ABSYS programa alde batera utzi du. Beraz, helburua liburutegi guztiak sare bidez elkartuta egotea denez, beraiek jarri behar duten programa berezi horretan sartzen saiatu behar gara. Beraz, ez da 2000-efektua [bakarrik](#), baizik eta sarean sartzeko programak egokitzea.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Datorren hilean kreditu aldaketa izango da. Gu orain aurreikusitako gastu korrante guztiak aztertu eta nola jokatu [ikusten ari gara](#). Aurrekontua geroz eta gehiago ari da helburuetara doitzen.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Oraingoz azalpen hauek ontzat ematen ditugu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3- ARAU SUBSIDIARIOAK

Alkate jaunak, Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) batzorde buruari hitza eman eta honela dio: “Uztailaren Udalbatzarrean, 18 HAKo eta 7.Sektoreari dagozkion Arau Subsidiarioen aldaketa behin-behinik onartu zen. Foru Aldundian dokumentazioa aurkeztu eta gero esan ziguten, Errepide Departamenduko txostena behar zela. Hori egin ondoren, Errepide Departamenduak txostena eman du eta horren ondorioz proposatzen da, txosten hori onartzea eta behin-behineko onespena berrestea. Txostena onartzeak esan nahi du Txarako Industrialdeak ez duela errepidearekin lotura zuzenik, beste plan bat dagoelako horretarako eta ez dutela ikusten 18 HAK **N-1 errepidearekin** lotura izan behar lukeenik, izan ere bidea **eginez** gero, orain dagoen galiboa gutxienez bi metro altxatu eta Zumarraga aldera aurreratu egin beharko litzateke eta horren **jaisiera** egun Zumarraga eta Bergarara dihoan sarbidearen **ia** gainean egongo litzateke.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: “Es una pena que no se pueda mantener el paso a la N-1. Votaremos a favor de la propuesta.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak bide hori publikoa eta Udalarena den galdetu du.

Erantzun zaio esanez publikoa dela baina Barne Berrikuntza Egitasmo Bereziak ordenamendu berria proposatzen duela eta Konpentsazio Proiektuak jasoko dituela ondasun pribatu eta jabego **publikoak** eta horien arabera egingo dela etekin eta kargen banaketa.

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Hau guztia, hainbeste eztabaidatutako proiektu orokor horretan oinarritzen denez, koherentzia mantenduko dugu eta abstenitu egingo gara.”

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 4 (EH)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

“Gaia: Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehenengo aldaketa.

AURREKINAK

Udalbatza Osoak 1999ko uztailaren 29an Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehen aldaketari behin-behineko onespena eman zitzaion legez ezarritako quorumarekin eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zen behin-betiko onespena emateko.

Obra Hidrauliko eta Hirigintza Departamentuak, 1999ko abuztuaren 13ko idatziaren bitartez jakinarazten zigun, Errepideetako Departamentuaren txostena eskatu behar zela, azaroaren 25eko 17/94 Foru Arauak, Gipuzkoako Errepide eta Bideei buruzkoak, 94. artikuluan aurreikusitakoa hain zuzen ere. Horren ondorioz, dagokion dokumentazioa bidali zen eta 1999ko urriaren 21eko datarekin Errepideetako Zuzendaritza Orokorrek honekin batera doan txostena eman du Beasaingo Arau Subsidiarioen aldaketari buruz eta zehazki 18 Ha, 7. Sektorea eta hirigintzako araei buruz.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Legeria aplikagarria, xedapen hauetan jasotzen da:

- Ekainaren 23ko 2159/1978, Erret Dekretuak onartutako Planeamendu Araudiaren 125. eta ondorengo artikulua.

- Azaroaren 25eko 17/94 Foru Arauak, Gipuzkoako Errepide eta Bideei buruzkoak, 94. artikuluan

- Onartzeko organuaren eskurantzari (Udalbatzarra) eta quorumari (gehiengo absolutua) buruz, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokaletako Oinarriak arautzen dituen Legea aldatzen duen apirilaren 21eko 11/1999 Legea.

Horren ondorioz, batzorde honek aipatutako aurrekinak eta zuzenbidezko oinarriak kontuan izanik, Udalbatzarrari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

Lehenik. Errepideetako Zuzendaritza Orokorrak, Beasaingo Arau Subsidiarioen aldaketari buruz eta zehazki 18 Ha, 7. Sektorea eta hirigintzako arauari buruz, emandako txostena onartzea.

Bigarren. 1999ko uztailaren 29ko Udalbatzarrean Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehen aldaketari emandako behin-behineko onespena berrestea.

Hirugarren. Erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea.”

4- 18 HAKo BARNE BERRIKUNTZA EGITASMO BEREZIA

Alkate jaunak, Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) batzorde buruari hitza eman eta honela dio eta honek proposamenaren berri eman du:

“AURREKINAK

1999ko ekainaren 9ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, 18 Hirigintza Areako Barne Berrikuntza Egitasmo Bereziari hasierako onespena eman zitzaion eta 1999ko ekainaren 9ko Udalbatzarrak behin-behineko onespena eman zion.

Hala eta guztiz ere, espedientea jendaurrean egon zen bitartean, Egitasmoan dauden terrenoen jabeek ez zitzaion banakako jakinarazpena egin eta izapide hau beharrezkoa da Planeamendu Araudiaren 139. artikulua arabera.

Akatsa konpondu zen eta legez ezarritako epean, María Encarnación Marques Martín andreak Zunzunegui jaunaren oinordekoen eta bere izenean sinatutako alegazioa aurkeztu zuen eta horri buruz udal arkitektoak 1999ko urriaren 25eko datarekin txostena eman du.

Errepide Departamentuari ere txostena eskatu zitzaion 18 HAKo Barne Berrikuntza Egitasmo Bereziari buruz eta 1999ko urriaren 21eko Errepideetako Zuzendaritza Nagusiaren idatzian adierazten da ordenamendu berri batean N-1 errepide nagusirako sarbiderik ez litzatekeela inondik inora onartuko, izan ere ez baitu baldintza geometriko egokirik eta N-1 eta GI-632 errepideen arteko lotura-adarra era oso kaltegarrian oztopatzen baitu.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Legeria aplikagarria, xedapen hauetan jasotzen da:

- Ekainaren 23ko 2159/1978, Erret Dekretuak onartutako Planeamendu Araudiaren 139. artikulua eta testu bereko 125. eta ondorengo artikulua.

- Etxebizitzaren arloko presako neurriak eta Hirigintza Plangintzako zein Kudeaketako tresnak izapidatzeko neurriak zehazteari buruzko, ekainaren 30eko 17/1994 Legearen 6. artikulua.

- Onartzeko organuaren eskurantzari (Udalbatzarra) eta quorumari (gehiengo soila) buruz, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokaletako Oinarriak arautzen dituen Legea aldatzen duen apirilaren 21eko 11/1999 Legea.

Horren ondorioz, batzorde honek aipatutako aurrekinak eta zuzenbidezko oinarriak kontuan izanik, Udalbatzarrari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

Lehenik. María Encarnación Marques Martín andreak Zunzunegui jaunaren oinordekoen eta bere izenean aurkeztutako **alegazioa ez onartzea**, udal arkitektoak 1999ko urriaren 25ean emandako txostenaren arabera.

Bigarren. 1999ko uztailaren 29ko Udalbatzarrak, 18 Hirigintza Areako Barne Berrikuntzako Egitasmo Bereziari emandako **behin-behineko onespena berrestea** eta **“Hirigintza-Proiektuan gaur egun N-1 errepide nagusira dagoen ibilgailuen sarbidea ordezkatzeari, errepidera gaur egungo baldintza berberetan iristea bermatzeari”** buruzko baldintza ezeztatzea.

Hirugarren. Erabaki hau, jabeei bidalitako jakinarazpenekin, aurkeztutako alegazioarekin eta txosten teknikoarekin **batera**, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, hala badagokio behin-betiko onespena eman dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Aurkeztutako alegazioa eta Barne Berrikuntza Egitasmo Berezian egiten den proposamena aztertu ondoren, ondorengo esan dezakegu:

Alegazioarekin ez gaude ados, baina multzo historiko horrekiko pausoak **eman** aurretik, guretzat merezi du azterketa sakona egitea jakiteko multzo bezala zein tratamendu eman behar diogun, elementu historikoak **gordetzeko**. Gero erabakiak etorriko dira hirigintza batzordearen eskutik. Kasu honetan **aholkulari** batzuei edo kulturako gaiak kudeatzen dituztenei iritzia eta azterketa

eskatzea ez litzateke gaizki egongo. Dena dela proposatzen dena onartu egingo dugu.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Alegazioari buruz, ados gaude proposatzen dena ezeztatzearekin. Dokumentuari behin-behineko onespina emateko proposamenarekin berriz abstenitu egingo gara. Bestalde Inguru historikoa [gordetzearekin](#) bat gatoz.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “El conjunto histórico monumental no entra dentro del AU 18, sino que entra dentro del Sector 1y que se está tramitando a través de la modificación de las Normas. Desde hace ya cuatro años y de la mano de la comisión de Cultura y de Juventud y Deportes ha existido una verdadera inquietud por recuperar, consolidar y hacer nuestros esos edificios. Al palacio concretamente se le está dando un uso. En estos momentos se están gastando once o doce millones de pesetas para sanear la base del edificio de Igartza y para deshumedecer todas las paredes. En todo este proceso se ha trabajado con el asesoramiento de la Sociedad Aranzadi. Otra cuestión es que de cara al futuro se le quiera dar un uso más intensivo. El problema de esos edificios es la estructura ya que en estos momentos impiden que en las plantas altas concorra mucha gente. Batzorde bat sortzeko asmoa dago ondare honi buruz egin behar diren iharduerak aurrera eramateko.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Esan da edifizio hauek ez direla 18 HAn sartzen baizik eta 1 Sektorekoak direla, baina hori ez da horrela erabat. Barne Berrikuntzako Egitasmo Berezian elementuak sartuta daude eta afektatuta gerta liteke. Guk ez dugu esaten orain arte [eman](#) diren pausoak gaizki [emanda](#) daudenik. Guk ikuspegi orokorra izatea proposatzen dugu. Ez dadila gertatu Igartzako jauregiak [bakarrik](#) arduratzea.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Tengo claro que tenemos que rescatar y cuidar ese entorno, para que no haya una invasión del desarrollo urbanístico nuevo de la zona. Aranzadi, creo que buen criterio, dice que no es necesario rescatar el canal. Cuando se derribe Indar van a venir arqueólogos a analizar que es lo que hay debajo del actual edificio de Indar en lo que queda de ferrería. El objetivo del Ayuntamiento ha sido que ninguna actuación que se vaya a desarrollar a corto plazo hipoteque ninguna de las soluciones que se le puedan dar al conjunto. Otra cosa es que una vez de que eso esté preservado hay que analizar a través de una comisión, los usos futuros de esos edificios.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, BBEBaren hasierako onespenerari aurkeztutako alegazioa ez onartzeko proposamena bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (EAJ/PNV-EA, EH, PSE-EE/PSOE, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, BBEBaren hasierako onespeneri aurkeztutako alegazioa aho batez ez onartzea erabaki da.

Jarraian, dokumentuari behin-behineko onspena emateko proposamena bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 4 (EH)

Horren ondorioz, erabaki hau hartu da:

“Lehenik. 1999ko uztailaren 29ko Udalbatzarrak, 18 Hirigintz Areako Barne Berrikuntzako Egitasmo Bereziari emandako **behin-behineko onspena berrestea** eta **“Hirigintza-Proiektuan gaur egun N-1 errepide nagusira dagoen ibilgailuen sarbidea ordezkatzea, errepidera gaur egungo baldintza berberetan iristea bermatzeari”** buruzko baldintza ezestatzea.

Bigarren. Erabaki hau, jabeen bidalitako jakinarazpenekin, aurkeztutako alegazioarekin eta txosten teknikoarekin **batera**, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, hala badagokio behin-betiko onspena eman dezan.”

5- PLANTILLA

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Proposamena, Udalaren plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea da. Egia da, oso berandu gabiltzala, baina horrek ez gaitu gehiegi kezkatu jakin **baigenekien** aurten **iazko** eredia aplikatzen zela eta ez zela inolako aldaketarik proposatzen.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

6- MOZIOA

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Dakizuenez, Udalbiltza erakunde politikoa sortu da Euskal Herriak duen behar bati aurre egiteko. Euskal Herria zazpi herrialdez osatuta dago, baina nahiz eta Euskal Herriak **bere** historia izan eta **kultur** elkarteak izatea onartuta egon eta **bere** hizkuntza izan, azken ehun urte hauetan juridiko-politiko eta administratiboki hiru administrazio desberdinek zuzendu **dute**. **Egitura** administratibo **desberdin** horiek errealitate ezberdinetara

garamatza. Soziologikoki Euskal Herria zatitzen ari da eta Euskal Herriak berak **bazuen** beharra Institutuzio berri bat sortzeko, kontutuan izanda Euskal Herria gerora begira eta Europak bizi duen prozesu horretan geroz eta gehiago elkarte naturalak hartuko dutela protagonismoa. Institutuzio horren betebeharrak, Euskal Herriak etorkizunean izango dituen arazoak aztertzea eta horiei aurre egiteko proosamenak eta lan egitarauak burutzea, izango litzateke. Udal oinarria duen Institutuzio bat, baina ez du kokapen juridiko-administratibo politikorik, momentu honetan herrialde **guztiek elkarrekin** dugun instituzio bakarra Udalak direlako. Horren inguruan badakizue Iruñan 620 udal-ordezkarri eta alkate bildu **eta** adierazi **genuela** instituzio berri bat sortu behar zela, horretarako oinarriak jarri eta batzorde iraunkor bat izendatuz. Tartean hauteskundeak zeudela eta beharrezkotzat jotzen zen Bilboko bilera egitea. Bilboko bilera horretan erabaki zen behingoz Institutuzio hori martxan jartzea. Mozioan esaten da zertarako sortu den Udalbiltza eta zein diren helburuak. Aurkezten den mozio **honen bidez** Udal honi eskatzen **zaio** Udalbiltzarekin eta Udalbiltzak dituen helburuekin bat egitea. Halaber, esan beharra dago, Institutuzio hau oinarri demokratiko garbi batekin sortzen dela eta eguneroko lanean bilatuko du herritar guztien borondatezko atxikimendua eta gure helburua da pixkana pixkana Udal guztien atxikipena lortzea. Badakigu momentu honetan egoera politikoa dagoen bezala egonda oso zaila dela, baina badakigu, baita ere, helburu hauekin ados ez egotea ez dela erraza.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: “El partido popular no hace comentarios al respecto y vota en contra.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Nahiko bitxia da azkenik honelako mozio bat Udalbatza honetara ekartzea, **jakinda** aurretik Udalbiltzak areto honetan bertan **hainbat bilera** egin dituela eta **jakinda**, gainera, Beasaingo Alkatea Udalbiltzako lehendakari izendatua izan zela. Guk aurkako botoa emango dugu proposamenarekin ez gaudelako batere ados. Herri honen historiaren behar bat **dela** aipatzeari buruz esan nire ustez obsesio baten erantzun bat dela horrelako dinamika bat sortzea momentu honetan. Nik uste dut honek ez **dela** beasaindarren beharrei **erantzuten**, baizik eta dinamika politiko baten erantzuna dela. Hemen indar politiko batek orain arte eraman duen estrategiarekin, hau da Herri Batasunaren strategiarekin koherentea da. Baina **harrigarria** iruditzen zaigu, eta hemen Eusko Alderdi **Jeltzalearen jardueran** aldaketa sakona ikusten dugu. Guk gauza asko ez ditugu ulertzen. Hemen Euskadiko Udalak aspaldidanik **federazio batean** bilduta daude, hau da, **Eudelen**. Udalen inplikazioa edo **beste herrialde batzuetako udalekin** harremanak estutzea **nahi bazen**, nik uste dut inoiz ez dela oztoporik egon horretarako eta **Eudel barruan horrelako planteamenduak egitea gainera**

EAJren aldetik koherentzia izango luke. Baina kasu honetan ez gara gauza praktikoetaz **hitz egiten ari** baizik eta sinbologia politikoetaz eta honen ardatz nagusia sinbolo bat sortzea da, hain zuzen ere, Udalbiltza eta honekin sinbolizatu nahi da Euskal Herriko herrialdeek bat egiten dutela. Apostua politikoa da eta ez praktikoa. Hainbat eredu dauzkagu. Orain dela aste bete Txingudi aldean akordio bat sinatu dute, Hendaia, Irun eta Hondarribiko Udalek, **beren** betebeharrak eta **elkarrekin dituzte** arazoak eztabaidatu eta aurrera eramateko. Nire ustez Beasainek ez du arazorik izan beste herrialdeetako udalekin harremanak izateko, **horretarako** beharra izan duenean. Adibidez, Etxegarateko plataforma hor dago eta ez da arazorik izan beste batzuekin lan egiteko. Baina hemen ez gara hitz egiten ari gauza horietaz. Gure ustez herri honek ez du berriro ere nazio**aren** gaia aztertu eta sakontze**aren** beharrik. Hori obsesio bat bihurtu da eta irtenbidea politikoa baino ia psikiatrikoa izango litzateke.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Hemen azal**dutako** proposamen honekin ados gaude eta dokumentua goitik beheraino **ontzat ematen** dugu. Herritarrei erantzuna ematen zaiela aipatzen denean, esan beharra dago, jendeari erantzuten zaiola alde zuzenetik galdetzen **bazaio** eta erantzuna jasotzen **bada** eta ez Madrilen funtzionari **ordezkari** batzuk erabakiak hartu ondoren. Gure ustez **bada garaia** errealitatea aztertzeko. **Garai batean** indarra zuen txikiari gauzak kendu egin **zizkion** eta horrela osatu zen historia eta horrela jarraitzen dugu. Guk ezin dugu onartu PSE-EE/PSOEn planteamendua. Mundua **hiruzpalau** handirik maneiatzen dute eta zuen arabera eginda dagoena ondo dago. Hori ezin dugu onartu. Beraz, mozioaren alde gaude herritarrei erantzuna ematen zaiolako. Benetako diagnostikoa egiten denean, denon artean esango dugu Euskal Herriak nolako antolamendua izan behar duen.”

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Guk onartzen dugu Alkatetzatik datorren mozioa. Jose Luis Elorza jaunari erantzuteko esango genuke aspaldidanik daudela zenbait harreman eta lotura lurralde desberdinen artean. Ez da gaurkoa Confederación de Cajas Vasco Navarras. Ez da gaurkoa Euskaltzaindia. No es por tanto casualidad el que se den esas relaciones que denotan que existe una realidad cultural y una realidad reconocida internacionalmente sin ninguna posibilidad de reconocimiento político y administrativo de la existencia de una Euskal Herria. Por otra parte el insinuar que es nuevo este tema en el partido nacionalista me parece que es olvidar que el partido nacionalista cuando habla de Euskadi habla de los siete territorios, seis si consideramos Nafarroa en su totalidad y eso está en el Diario del partido nacionalista vasco, y como realidad se está trabajando en ese sentido. Lo que si me extraña es el que se diga que, como parece que también Euskal Herritarrok apoya esto, quizá nos estemos sometiendo. Hoy decía un dirigente socialista que se está llegando a la normalización y que

también hay que tratar con los leprosos de Euskal Herritarrok. Nosotros creemos que no son leprosos sino demócratas como todos los demás. Hemos coincidido en este tema. Ellos tendrán sus ideas y sus aspiraciones, pero tenemos un mínimo común denominador. Quizás las velocidades sean distintas, pero si con esto se puede conseguir algo respecto del conflicto político existente y que dicho sea de paso el partido socialista también lo reconoce, bienvenido sea. Nosotros estamos dispuestos a apostar por ello. Todos los analistas dicen que el tema de la nacionalidades qued´p pendiente y hay que hablar sobre ello. En el nacionalismo vasco hay partes positivas, como también los hay en el nacionalismo francés y en el español. Tenemos que reconocer que ni es blanco ni es negro. En ese sentido tenemos que recordar que en Suresnes, los del partido socialista proclamaron públicamente el derecho de autodeterminación de los pueblos y de las nacionalidades de España, pero se han olvidado de ello. Nosotros quizás tengamos la obsesión de la nación, pero es que somos nacionalistas. Lo que me extraña es que esa obsesión de los socialistas de hacer una sociedad sin clases la hayan olvidado. Hablar de esa obsesión de nacionalismo, cuando hay otra obsesión de que no se hable de nacionalismo no interesa compartir. Nosotros estamos dispuestos a hablar de todo, aunque los de EH nos digan que hemos apoyado al PP en los presupuestos, porque nosotros aplicamos lo que decía Sabino y es que si hay que conseguir algo para nuestra patria, si hace falta pactamos con el diablo, y eso no quiere decir que los del PP sean el diablo.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Jose Luis Elorzak obsesioa aipatu du eta mezu desberdinean EHren strategiarekin bat egin dugula esan du. Nik uste dut Udalbiltza PSOerentzat hasieratik obsesio bat izan dela. Iniziatiba legitimoa izan da eta zer izan behar zen jakin aurretik deabrua ikusi nahi izan duzue honen inguruan. Nazioa egitea, abertzaleon zeregina da. Eusko Alderdi Jeltzalearen ideien artean betidanik egon da da sei edo zazpi lurraldeen batasuna. EHren strategiara makurtu garelara esatea EAJk erreferentzia guztia galdu duela publikoki esatea da. Eta gainera gaur Nicolas Redondok ez du ba esan gure hauteskunde-merkatua bilatzen ari direla. Nik uste dut PSOerentzako dela obsesio, zeren eta guk oso garbi dugu zertarako sortu den instituzio hau. Ez dugu ukatzen egoera politikoa aldatzen ari dela eta aldatu nahi dugulako inizatiba hau martxan jarri dugu, jakinda gure ideia politikoen artean dagoela. Errealitate bat badago. Nik euskaldun gisa gerora begira nire hizkuntza bermatzea, euskal kultura indartzea eta Iparraldekoekin gizarte-harremanak izatearen beharra ikusten dut. Momentu honetan Eusko Jaurlaritzaren eskurantzak mugatuta daude, Nafarrokoarenak ere bai eta aldiz Iparraldean ez dago ezer. Neri gustatuko litzaidake Iparraldekoek guk daukagun autogobernu maila izatea, horrek gure garapen ekonomikoa, linguistikoa eta kulturala erraztuko bailuke. Lehen Patxik esan duen bezala, Eusko Ikaskuntza eta AEK daude, Eusko Alderdi Jeltzalea sei lurraldeetan

dago. Horrek esan nahi du **kezka bat** badagoela eta behar bat **ere bai**, eta zergatik ez dugu instituzio bat osatzen non egiten dugun diagnostiko bat gaur egun Euskal Herriaren egoera **zein den jakiteko** eta eskema horrekin beasaindarren egoera hobetu?. Beasaindarrentzat baliagarriak ez diren proposamenak ez ditugu planteatuko. Orain dagoen errealidade instituzionala **jakinda eta** horri aurre egiteko demokratikoki osagarria izango den instituzioa sortu nahi dugu. Hori legitimoa, demokratikoa eta beharrezkoa da. Eudel hitza ateratzen da beti eta nik **zentzu horretan Eudelen** estatutoak irakurtzeko **eskatuko nizueke**. Eudel **Erkidego** Autonomoko Udalen konpententziak defendatzeko **sortu zen**. Helburuak ez dira Udalbiltzarenak.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Yo en ningún caso he hablado de leprosos ni de cosas por el estilo. Yo no tengo ningún problema en trabajar políticamente con HB y ha habido veces en que hemos coincidido, ha habido otras muchas en que no, y HB sabe también como cualquier otro el problema que por desgracia nos ha separado y soy el primero en desear que ese problema, que es la violencia y ETA, no exista para poder colaborar de una manera más intensa políticamente en determinados campos en los que si podemos coincidir. Otra cosa es que tengamos posiciones políticas diferentes y cada uno legítimamente defendemos lo que creemos. Cuando nosotros manifestamos nuestra cultura en ningún caso quiere decir que no estemos a favor de nuestra propia cultura, del euskera, del desarrollo de las relaciones con Nafarroa con Ipar Euskadi, etc. En el fondo no tiene nada que ver, es decir, nosotros estamos a favor de esas relaciones como lo pueda estar cualquier otro. La diferencia es que en estos momentos cuando se crea una institución como lo es Udalbiltza, se está abriendo una forma de plantear las cosas, que es con la que nosotros políticamente no estamos de acuerdo. La pregunta es, todas las instituciones comunes que tenemos hasta ahora para qué están. Tenemos un gobierno, un presupuesto de miles de millones. Se está haciendo una política del euskera, y de otros temas desde hace años. Yo creo que los resultados en los últimos veinte años son más que evidentes, para el que los quiera ver. Cuando yo digo que es una obsesión lo quiero decir es que desde mi punto de vista no se aceptan los órganos competenciales que existen hoy en día. Entonces se busca un atajo indirecto que es lo que pretende ser Udalbiltza, para que de alguna manera supere lo que actualmente existe. El problema de nuestras relaciones con Nafarroa es que no hemos conseguido un mecanismo de acuerdo político común, y en eso tiene parte de responsabilidad el partido socialista con todos los líos de corrupción que se han dado en Navarra, que entre otras cosas echaron abajo el convenio entre Ardanza y Otano, pero nosotros estamos por la vía de intensificación de las relaciones, pero si no consigue más es porque en Nafarroa la estrategia política de los partidos que ganan y a los que mayoritariamente los navarros les dan su voto y su apoyo, son partidos que en

estos momentos no comparten el intensificar las relaciones con Euskadi. Si en Ibar Euskadi hay una dinámica de este tipo, nosotros estamos de acuerdo, así como el dar pasos con las Instituciones que ya existen. Respecto a la idea de demonizar, también en el juego político os tendréis que acostumbrar a que siempre no se os va a dar la razón. Hay veces que tomáis posiciones políticas que no compartimos y entonces cada uno tiene que manifestar su parecer.”

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: “La palabra leproso creo que es una simbología muy clara de entender. Lo he dicho de manera coloquial. me congratulo de que el partido socialista vaya a hacer verdaderos esfuerzos respecto de la unión con Navarra. En el departamento de Iparralde no había movimiento y ha surgido, pero muchas de las decisiones están en manos del partido socialista francés y creo que sería interesante que transmitierais esa idea de que podemos y debemos colaborar. Por otra parte me ha extrañado un poco que consideréis a los Ayuntamientos como instituciones democráticas de segundo grado. Los Ayuntamientos son instituciones de base y tienen derecho de agruparse y reunirse. Si a eso se le quiere buscar un componente político, nosotros le damos un componente político, pero no negamos el que tienen ese derecho.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Agradezco el tono de la segunda intervención de Jose Luis Elorza porque creo que con las ideas que ha transmitido en Udalbiltza nos podemos encontrar. El hecho que el gobierno Vasco y el gobierno de Navarra no hayan logrado establecer un relación, no significa que Udalbiltza lo quiera imponer, sino lo que busca es la libre adhesión de todos los ciudadanos. Nuestro deseo es que las propuestas sean tan válidas e interesantes, que al final el ciudadano de Navarra y el de Iparralde vea necesario potenciar una Institución de este tipo.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11(EAJ/PNV-EA, EH)
Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE, PP)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

“UDALBILTZAREN SORKUNTZA ETA HELBURUEKIKO ATXIKIPEN-MOZIO POLITIKOA

Euskal Herriko 21 alkatek deiturik, 660 alkate eta zinegotzi bildu ziren Iruñan, iragan otsailaren 6ean. Deialdiaren helburu eta bileraren xedea

argi eta garbi agertzen ziren han bertan egindako aldarrikapenean: “Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako alkate eta zinegotziak Iruñan elkartu gara gaur, erabat demokratikoa den ekitaldi bat burutzeko. Gure ordezkariak eta lan-esparrutik, hau da, marko juridiko-politiko ezberdinetatik abiatuak sei herrialdeetako euskaldunen harremanak legitimoki bultzatu nahi ditugu. Hori dela eta, Euskal Herriko udal hautetsiak udal izaeran oinarritutako euskal instituzio nazionala eraikitzeke nahia adierazten dugu.”

Jarraian, sortu asmo zen erakunde nazionalaren helburu eta egitekoak izendatzen zituen Iruñan irakurritako agiriak:

1. Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzea.

2. Euskal Herriaren egituraketa politikoa eraikitzeari laguntza ematea. Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik.

3. Erakunde iraunkorra izateko asmoarekin jaoi, borondateak pilatu eta batzeko sortua da eta ez du, ordea, beste erakunde batean bihurtzeko asmorik. Euskal Herriko antolakuntza instituzional zein politikoaren azterketa eta estabaida aztertzeke.

4. Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzeko. Euskal Herriari buruzko diagnostiko oinarritzak egingo da lehendabizi; geroago, nazio eraikuntzaren arazo eta erronka erkideei modu bateratu batean aurre egiteke.

5. Euskal Herria nazio berezkoa eta ezberdindua dela nazio-artean aldarrikatzea eta Nazio gisa jardun nahi duela Europako geroko egituraketan.

Aho batez onartua izan zen Iruñan udal izaeran oinarritutako erakunde nazionala sortzeko proposamena; alegia, arestian zehaztutako 5 helburu horiek aurrera eramaten ahaleginduko den erakundea. Asmo hori ahalbideratzeko, gisa horretako erakunde baten prestaketa lanak burutzeko, 10 Kideko Batzorde bat aukeratu zen, aldi berean Iruñako bilkuran.

Beraz, han onartutako asmo politikoa, hau da, erakunde nazionala sortzeko mandatu eman zitzaion Batzorde iraunkorrari.

Ekaineko Udal hauteskundeen ondorengo aldaketak bideratu zirenean eta Iruñan aho batez hautatutako Batzordeak bere prestaketa lanak burutu zituenean,egin zuen bere deia, Irailaren 18an biltzartzeko.

Deialdiari erantzunez 1.800 alkate eta zinegotzi inguru bildu ziren Bilboko Euskalduna Jauregian, arartean asmo bat baizik ez zen erakunde nazionala sortzeko. Lau izan ziren han hartutako erabakiak, banan banan bozkatuak. Gaiengo mardul eta zabal baten baiezkua jaso zuten ondorengo erabakiek:

1. Udal oinarria duen erakunde nazionala sortzen da.

2. Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra da bere izen osoa, baina erabilgarriago izan dadin eta nahasketak ekiditeko, UDALBILTZA bezala ezagutu, erabili eta aldarrikatuko da.

3. Bost lantalde sortzea erabakitzen da.

3.1 Euskal Herriaren naziotasuna garatuko duen taldea.

3.2 Euskal Herriaren oinarrizko diagnostikoa egingo duen taldea.

3.3. Euskal Herria nazio bat dela nazioartean isladatzeko lantaldea.

3.4 Euskal Herriaren barne egituraketa instituzionala aztertu eta aztabaidatuko duen taldea.

3.5 Erakundearen beraren barne antolamendu eta funtzionamenduaz arduratuko den lan taldea.

5. Batzorde iraunkor berriko 15 kide izendatu eta onartzen dira batzarrean.

Aurreko 4 proposamen horiek Biltzarraren erabaki bihurtu eta gero, beraz, erakunde berriari sortu ondoren, adierazpen politiko baten bidez eman zion hasiera batzorde berriak bere ibilbideari:

“Iruñan aitortutako borondate politikoari jarraiki, lehen euskal erakunde nazionala sortu dugu, UDALBILTZA jai da. Udalbiltzak Euskal Herriaren lurraldetasuna adierazten du, Udalbiltzak nazio moduan aritzeko aukera eskeintzen digu eta Udalbiltzak nazio bezala mundaren aurrean agertzeko era ematen digu”.

Lehendabizi oinarrizko diagnostikoari eta lantaldeak osatzeari ekingo zaio. Beste erakunde, elkarte eta egile ekonomiko-sozialekin, elkar lanean

arituko da, atepak zabalik dituela, borondatezko partehartzea eta auzolan giroan.

Eta horrela jarraitzen zuen Euskalduna jauregiko aldarrikapenak: “Euskal udal-hautetziak gara eta euskal nazioa aitortzen dugu. Euskal herritarrei eta udal ordezkari guztiei luzatzen diegu gure gonbidapena, Euskal Herriaren une historiko honetan parte har dezaten”.

Udal hautetsiak eta Udalek osatzen dugu UDALBILTZA. Udal hautetsiak eta Udalek babestu, indartu eta garatu behar dugu Udalbiltza, gure erakunde nazionala.

Udalbiltza bezalako erakundeak behar ditu Euskal Herriaren eraikuntza demokratikoak, auzolanean, borondatez eta denen partehartzez osatua eta egituratua, inungo inpozaketa eta zatiketarik gabe.

Euskal Herriko Udalen arteko harremanak sakontzeko, senidekidetzan lan egiteko eta Euskal Herri osoaren alde aritzeko sortu da Udalbiltza

Hau guztia kontutan izanik Alkatetza honek Udalbatzarrari ondorengo erabakiak hartzea proposatzen dio:

1. Udalbiltzaren helburuak, egitasmoak eta izatea bere egiten ditu Beasaingo Udalak.
2. Bertako kide izateko borondatea adierazten du bidebatez.
3. Udal erabaki honen berri Udalbiltzari emango zaio.
4. Komunikabideen bitartekoz herritarrei jakin araziko zaie.”

7- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko **beste** gairik ezean, bilera gaueko zortziak eta berrogeita hamarreen amaitu da eta nik idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.

